

BALIO PROPOSAMENA

Gure jatetxeak beste jatetxeetatik ezberdina da. Leioan jatetxe kopuru gutxi daudenez, gure proiektuak Leioako biztanleen behar hori asetuko du. Gure ideia jatetxeen sektorean berrikuntzak egitea da, eta horretarako ekintza batzuk aurrera eramango ditugu.



Lehenengoz, menu bakun, tipiko eta eskuragarri bat eskaintzen dugu. Bertan janari aniztasuna aurki dezakegu: patata tortilla, haragiak, arrainak, itsaskiak... Gainera, bezeroen nahiak hobeto asetzeko, gure kartatik kanpo dauden platerak eskatu ahal izango dira, aste bat aurretik eskatuz gero.



Hori nahikoa ez bada, bezeroek gure sukaldea ikusteko aukera izango dute, aurrez-aurre ikusteko nola egiten diren jango dituzten platerak. Beirate bat egongo da janlekua eta sukaldearen artean hori posible egiteko.



Jatetxe izan arren, taberna da ere, eta bezeroak etorri ahal izango dira zerbait edatera. Gure bezeroek gu aukeratuko gaituzte beste jatetxeak aukeratu beharrean gure kalitateagatik, gure berriztasunagatik eta gure prezioengatik.

Gure bezeroak, batik bat, familiak izango dira, normalean gurasoak direnak edota haien lagunekin edo familiarekin jatera joan nahi direnak. Kalitate eta prezioaren arteko oreka bilatzen dute. Hori gure jatetxeko arloko bezero mota da, baina horrez gain, tabernan, bezero mota asko sartuko dira, hala nola, familiak, lagun taldeak (gazteak eta adinekoak), agureak, lan egitera metroz joaten diren kafetxo bat hartu nahi duten langileak...



Gaur egungo egoera jakinda, covid-aren kontrako neurriak hartuko ditugu. Hala nola, gel hidroalkoholkoa edukitzea sarreran eta mahaien arteko distantzia egokia. Musukoaren erabilera beharrezkoa izango da ere.



Gure establezimenduaren ondoan tabernak egon arren, ez dute eragin negatiborik edukiko, positiboa baizik. Jendea tabernaz-taberna joaten denez, gure jatetxera hainbat pertsona etorriko dira, batzuk bezero fidelak bihurtuko direlarik.